

tzeko memoria, eskudun organoak sinatutakoa; kasu bietan ere jasotako inbertsioaren zenbatekoa eta noiz jaso den zehaztuz. Obra-proiektuei dagokienez, aipatu agiriak ez dira bidaliko harik eta obra amaitu arte, obra egiten ez denean izan ezik.

– Gauzatutako inbertsioari egotzi behar zaion behin betiko ibilgetuaren zenbakia eta azpi-zenbakia.

– Jasotzailea, beste erakunde publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak direnean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari baimena ematen zaio agindu hau gauzatzeko behar diren zirkularrak eta jarraibideak emateko.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihar-munean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 10a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA OSASUN SAILA

5351

206/2006 DEKRETUA, urriaren 17koa, Vitoria-Gasteizko «Manuel Iradier» Afrikaren aldeko elkarteak onuragarria dela aitortzeko dena.

Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko interes orokorraren alde egiten duten elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, inskribatuta baldin badaude.

Lege horren babesean, Vitoria-Gasteizko «Manuel Iradier» Afrikaren aldeko elkarteak aipatu adierazpena eskatu du burutzen dituen jarduerak direla-eta herri-onurako elkartetzat hartzeko merezimenduak egin dituela uste baitu, esaterako Arabako jendearen Afrikaren aldeko zaletasuna sustatu, hartu-eman soziokulturala ahalbidetu eta Manuel Iradier eta Bulfi jaunaren lanak zabaldu.

Eskabidea egiten duen elkarteak 1989ko irailaren 27ko Ebazpenaren arabera inskribatu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan du, bereziki, jarduera-eremua.

mismas, firmada por el órgano competente, con indicación en ambos casos de la fecha de recepción y del importe de la inversión recepcionada. En el caso de proyectos de obras, esta documentación no se enviará hasta que finalice la obra propiamente dicha, excepto si ésta no llegara a realizarse.

– Número y subnúmero de inmovilizado definitivo al que debe imputarse la inversión realizada.

– Destinatario, cuando se trate de inversiones gestionadas para otros entes públicos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se autoriza a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración para que dicte las instrucciones y circulares necesarias para la puesta en ejecución de la presente Orden.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2006.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES DEPARTAMENTO DE SANIDAD

5351

DECRETO 206/2006, de 17 de octubre, por el que se reconoce como de utilidad pública a la Asociación Africanista «Manuel Iradier», de Vitoria-Gasteiz.

El artículo 22 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, establece que podrán ser reconocidas como de Utilidad Pública las Asociaciones inscritas que contribuyen mediante el desarrollo de sus actividades a la promoción del interés general de Euskadi.

A su amparo, la Asociación Africanista «Manuel Iradier», de Vitoria-Gasteiz ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que realiza, tales como impulsar la vocación africanista del pueblo alavés, posibilitar el intercambio socio-cultural y divulgar la obra de D. Manuel Iradier y Bulfi, la hacen merecedora de reconocimiento como entidad de Utilidad Pública.

La Asociación solicitante, inscrita de acuerdo con la Resolución de 27 de septiembre de 1989, extiende su ámbito de actuación principalmente a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Eratu zenetik, «Manuel Iradier» Afrikaren aldeko elkarteak ondorengo jarduerak garatu ditu, besteak beste:

a) Osasun-arloko jarduerak: Cogoko barrutiko ospitaletegia osorik birgaitzea, Cogoko barrutian lehen-mailako osasun-arretako programak ezartzen laguntzea eta lehen-mailako arreta-programak garatzea.

b) Hezkuntza- eta garapen-jarduerak: eskolak erakitzea, putzuak konpondu eta atontzea, lanbide-heziketako bekak finantzatzea, kolonia-garaiko uharkak birgaitzea, Coriscoko biztanleak urez hornitzea eta landa-akuikultura garatzea.

c) Zientzia-jarduerak ondorengo gaietan: zoologia, kartografia, entomologia, eta hidrogeologia, zoologia, geologia eta botanikaren inguruko ikerketa.

d) Dibulgazio-jarduerak.

Aipatu legearen 22. artikuluan agindutakoarekin bat etorritik, onuragarritasun-aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu bidez egingo da, arloa dela-eta kasuan kasuko sailek proposatuta, eta sailek eta interesatuta dauden erakunde eta entitateek txostena eman ondoren. Agindu hori betetz, dagokion espedientea instruitu da, eta, ondoren, sailei eta instituzioei eskatu zaizkien txostenak erantsi zaizkio espedienteari. Txosten horietan, bestalde, Vitoria-Gasteizko «Manuel Iradier» Afrikaren aldeko elkarteak onuragarria dela aitortzearen alde agertzen dira bai sailak, bai instituzioak.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren eta Osasun sailburuaren proposamenez, interesatutarik dauden erakunde eta entitateek emandako txostenak ikusi ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urriaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Vitoria-Gasteizko «Manuel Iradier» Afrikaren aldeko elkarteak, Bazkunen Errolda Nagusian A/1.687/89 zenbakiaz inskribatuta dagoena, onuragarria dela aitortzea, uste baitugu bere jarduerekin Euskadiko interesen alde egiten duela.

Horrekin batera, aitorten horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22.2. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urriaren 17an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

Desde su constitución, la Asociación Africanista «Manuel Iradier», de Vitoria-Gasteiz ha realizado entre otras las siguientes actividades:

a) Actividades en materia sanitaria: reconstrucción integral del Complejo Hospitalario del Distrito de Cogo, apoyo a la implantación de programas de atención primaria de la salud y desarrollo de programas de atención primaria en el Distrito de Cogo.

b) Actividades educativas y de desarrollo: construcción de escuelas, reparación y acondicionamiento de pozos, financiación de becas de formación profesional, rehabilitación de antiguos aljibes de la época colonial, dotación de agua a la población de Corisco y desarrollo de acuicultura rural.

c) Actividades científicas en materia de zoología, cartografía, entomología, investigación hidrogeológica, zoológica, geológica y botánica.

d) Actividades de divulgación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley, la declaración de Utilidad Pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda por razón de la materia, previo informe de los mismos y de los entes y organizaciones interesados. En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mismo los informes emitidos por los Departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a la declaración de la Asociación Africanista «Manuel Iradier», de Vitoria-Gasteiz como entidad de Utilidad Pública.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Justicia, Empleo y Seguridad Social, de Vivienda y Asuntos Sociales, y de Sanidad vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 17 de octubre 2006,

DISPONGO:

Artículo único.— Declarar de Utilidad Pública a la Asociación Africanista «Manuel Iradier», de Vitoria-Gasteiz, inscrita con el número A/1.687/89 en el Registro de Asociaciones del País Vasco, por considerar que contribuye a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus actividades.

Así mismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 22.2 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2006.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.